

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN EBALUAZIOA

INGURUMENEAN



2021

---

Izenburua: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa ingurumenean"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea  
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2021eko maiatzean eguneratua

---

# AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA .....	4
2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK.....	7
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN.....	7
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK .....	14
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA..	22
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA .....	26
2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK ....	32
3. LEGEDIA .....	34
4. DATU-ITURRIAK.....	36
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK .....	37

# 1. TESTUINGURUA

Klima-aldaketaren aurkako borroka gizateria osoak aurre egin behar dien erronka handienetako bat da gaur egun. Espainiako Emakumearen Institutuak 2020ko ekainean plazaratutako «Género y cambio climático: un diagnóstico de situación» txostenean adierazten denez, «egoera berriek eragiten dituzten efektuetara egokitzearekin eta efektuok arintzearekin lotutako politikek ezin dute alde batera utzi errealitate horrek generoarekiko neutroak ez diren desberdinkeriak eta diskriminazioak eragiten dituela». Beraz, klima-aldaketaren errealitatea ingurumenari dagokionez planteatzen den gai orokorra da; nolana ere, errealitate horrek dimentsio askori egin behar dio aurre.

Testuinguru orokor gisa, adierazi behar da Nazio Batuek, 2015ean, Garapen Jasangarrirako Helburu deituak (aurerantzean, GJH) ezarri zituztela. Helburu horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke dokumentu honetarako: «Genero-berdintasuna», «Ur aratza eta saneamendua», «Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea», «Hiri eta komunitate jasangarriak», «Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak», «Klimaren aldeko ekintza», «Itsaspeko bizitza» eta «Lehorreko ekosistemen bizitza». GJHen ikuspegia globala bada ere, zerrenda txiki horrek erakusten du ingurumenarekin eta garapen jasangarriarekin lotura duten gai guztiak garrantzitsuak direla.

Klima-aldaketarekin lotura duten aldaketen eragina emakumeengan eta gizonengan desberdina dela abiapuntutzat hartzen bada, esan daiteke, oro har, emakumeek klima-aldaketaren eraginekiko kalteberatasun handiagoa dutela, bereziki maila sozioekonomiko txikienetan, emakumeen rolararen eraikuntza soziala dela medio, emakumeak lotuago baitaude etxeko eremura eta familiaren zaintzara (Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Erakundea, 2020).

Bestalde, emakumeek eta gizonek desberdin elkarreragiten dute ingurumenarekin. Izan ere, kontsumo-ohiturak (aurrezte, birziklatzea, erostea) eta mugikortasuneko portaera eta garraiobideen erabilera desberdinak dituzte. Horiek gizartean dituzten rol sozialek baldintzatuta daude. Era berean, ingurumenari eragiten dioten arazoekiko kezka (klima-aldaketarekiko kezka, besteak beste) oso hedatuta dago biztanleen artean eta nahiko adostasun dago prebentzioko neurriak eta neurri aringarriak ezartzeko premiaren inguruan, baina emakumeak kezkatuago ageri dira arazo horien ondorioei buruz.

Ingurumenaren jasangarritasunak bat etorri behar du gizarte zuzen batean oinarritutako jasangarritasun sozialarekin; gizarte horretan, emakumeek baliabideak erabiltzen eta kudeatzen jakitea eta emakumeek erabakitze-prozesuetan pisu handiagoa izatea oinarri izango dira ingurumen-ongizate handiagoko ekoizpen- eta gizarte-eredu bat lortzeko. Nolanahi ere, emakumeek ingurumenarekin lotutako kargu publikoetan duten presentzia ez

da guztiz orekatua, emakume horiek duten pisua oraindik ez baita nahikoa ingurumenaren arloan hartzen diren erabakietan. Halaber, ingurumenarekin lotutako jardueretan jarduten duten gizonen kopurua handiagoa da. Ildo horretan, emakumeek ingurumenaren lan-merkatuan duten presentzia emakumeek lanbide- edo unibertsitate-heziketako ikasketa espezializatuetara duten sarbideak baldintzatzen du, ikasketa horietan gizonezko ikasleak baitira nagusi, emakumezko ikasleek graduak eta bereziki ikerketarekin eta kudeaketarekin lotutakoak aukeratzen baitituzte batez ere. Nolanahi ere, sektore honi etorkizun hurbilerako iragartzen zaion enplegua sortzeko ahalmen handiak aukera bat eskaintzen du, emakumeak lan-merkatu honetan integratzeko, ingurumenarekin lotura handiagoa duten unibertsitate- eta lanbide-prestakuntzaren arloetan emakumeen presentzia areagotzen den neurrian.

Pertsonentzat osasuntsuagoa eta osasungarriagoa den ingurumena lortzeko ingurumen-araudi eta -jarraibideei dagokienez gero eta zorrotzagoa den egungo egoeran, ingurumenean orokorrean edo etxeko eta laneko ingurunean dauden eta jatorri kimikoa duten substantziek eta produktuek oraindik ere ondorio negatibo asko dituzte emakumeen osasunerako; nolanahi ere, agerian jartzen da laneko osasunaren inguruko ikerketa eta azterlanak genero-ikuspegiarekin egin behar direla, emakumeen eta gizonen artean dauden eragin desberdinak ezagutzeko. Arrisku horiek emakumeek ugalketa-lanen eremuan presentzia handiagoa dutelako sortzen dira; izan ere, eremu horretan hainbat motatako produktu kimikoekin kontaktuan egoten dira, eta produktu kimikoekin kutsatzeko arriskua dakarten zereginetan aritzen dira (osasungintzan, estetikan, garbiketa-lanetan, etab.).

Ingurumena aztertzerakoan generoaren ikuspegia aintzat hartzeak ekarri behar du, hortaz, aitortzea emakumeek arrisku handiagoa dutela, alde batetik, ez delako kontuan hartzen substantzia eta produktu horiek emakumeen baldintza biologikoetan izan dezaketen eragina, gizonekin alderatuta; eta, bestetik, ez direlako aztertzen emakumeei eta gizonari esleitutako genero-rol desberdinak, eta rol horien ondorioz bizitzan zehar batzuek eta besteek izango dituzten ingurumen-arrisku desberdinak. Beharrezkoa da agintariak arazo horri aurre egiteko erantzukizuna beren gain hartzea, prebentzio handiagoa sustatuz, informazio egokia eskainiz eta sexuaren arabera banakatutako analisiak barnean dituzten eta generoa azterketarako kategoria gisa erabiltzen duten ikerketak eginez.

Ingurumen-kudeaketa genero-ikuspegitik egiteak berarekin darama gizarte-erantzukizun berri bat eta emakumeek ingurumenarekin lotura duten gaietan parte hartzeko modu berri bat, hala, erabakitzeko ahalmen handiagoa izan dezaten ustiapen-moduei, baliabideak eskuratzeari eta kudeatzeari, kontsumoari, merkaturatzeari, hondakinen kudeaketari eta abarri dagokien guztian.

Azken batean, ingurumenaren alorrean aukera-berdintasuna lortu nahi bada, ezinbestekoa da berdintasunaren alorrean indarrean dauden legeek

ezarritako aginduak betetzea. Horretarako, komenigarria izango litzateke ingurumen-politikekin lotutako instituzioek eta erakundeek sentsibilizazio-ekimenei edo prestakuntza-jarduerei ekitea, emakumeen partaidetza handiagoa izan dadin, baina ez soilik dagozkien zuzendaritza publikoetako eta/edo pribatuetako organoetan, baita politika horiek definitzearekin lotutako prozesu guztietan ere. Gainera, arestian adierazi denez, genero-ikuspegia eremu horrekin lotutako estatistiketan sartu behar da ingurunearekin eta klima-aldaketarekin lotura duten osasun-arloko ohiturek, jarrerek eta arazoek bereziki emakumeengan dituzten ondorioak ebaluatzeko alderdi giltzarri gisa.

---

## 2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

### 2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

---

Kontsumo-ohiturei eta -praktikei dagokienez, emakumeen eta gizonen ingurumen-jokabideek, klima-aldaketaren ondorioek emakumeengan eta gizonengan duten eraginak, eta, azkenik, ingurumena zaintzeko eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko zenbait neurri ezartzearen gaineko jarrerak, neurrioi loturiko gizartearen parte-hartzea eta sektorearekin lotura duten zereginetan sexu bakoitzak duen presentziaren inguruko jarrerek hainbat elementu bereizgarri dituzte. Elementu horiek zehazki aztertuko ditugu ondoren.

#### **Kontsumo-ohiturak.**

Etxeko ohiturek eta eguneroko bizimoduko ohiturek zuzeneko ondorioak dituzte ingurumenean eragiten den inpaktuan (baliabideen kontsumoa, hondakinak sortzea, emisio kutsagarriak eta abar). Pertsonak beren etxebizitzetan eta lantokietan zenbat denbora igarotzen duten, zer-nolako zereginak egiten dituzten, jasangarritasun gehiagoko edo gutxiagoko ohitura batzuen aurrean nolako jarrera duten... Askotan horrek guztiak baldintzatzen du nola kontsumitzen den eta zenbat baliabide eta hondakin sortzen diren.

**Ur-kontsumoari** dagokionez, Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkestaren arabera (Eustat, 2016), emakumeen eta gizonen artean ia ez dago desberdintasunik ura aurrezteko ohiturei dagokienez; izan ere, emakumeen % 97,3k eta gizonen % 97,5ek adierazi dute uraren erabilera jasangarriagoa egiten dutela baliabide gisa; ehuneko horiek 2008ko datuei dagokienez adierazitakoen oso antzekoak dira.

Ura aurrezteko izan daitezkeen ohitura motak kontuan hartzen badira, ikus daiteke desberdintasun txiki batzuk daudela; izan ere, etxeko zereginekin lotutako aurrezpen-jardun gehiago egiten dituzte (ontziak garbitu aurretik harraska betetzea, janaria txorrota erabili gabe desizoztea, ura birziklatzea); aitzitik, adibidez, gizon gehiagok ixten dute ixteko giltza, emaria gutxitzeko. Jardun horiei dagokienez, bi sexueta desberdintasunak txikiak badira ere, emakumeek etxeko zereginetan ardura handiagoa izateak eragina izan dezake emakumeek uraren erabilera jasangarriagoa egiteko moduan. Bestalde, ura aurrezteko gailuak erabiltzea asko samar hedatuta dago bi sexueta, emakumeen % 75,5ek eta gizonen % 78,6k erabiltzen baitituzte.

**1. koadroa.** Ura aurrezteko ohiturak EAEko populazioan.

URA AURREZTEKO OHITURAK EAE-N, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Ontziak garbitu aurretik harraska betetzea	38,2	35,0	3,2
Janaria txorrota erabili gabe desizoztea	88,8	85,8	3
Ura birziklatzea	13,7	10,8	2,9
Bainugelak paperontzia izatea	36,9	35,9	1
Arropa-garbigailua/ontzi-garbigailua betetzea	87,3	87,3	0
Ur hotzeko botila hozkailuan izatea	56,9	59,0	-2,1
Ixteko giltza ixtea, emaria gutxitzeko	26,6	31,4	-4,8
<b>Guztira</b>	<b>97,3</b>	<b>97,5</b>	<b>-0,2</b>

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

**Energia-kontsumoari** dagokionez ere ez da desberdintasun handirik ikusten emakumeen eta gizonen artean kontsumoaren efizientzia handiagoa izateko aukera ematen duten elementuen instalazioari dagokionez. Elementu horiek isolamendu termikoak (emakumeen % 99,1 eta gizonen % 99) izan edo argi-iturri eraginkorragoak (emakumeen % 96,4 eta gizonen % 96) izan. Isolamendu edo argiztapen mota kontuan hartzen bada, esan daiteke bi sexuen artean dauden desberdintasunak txikiak direla, oro har; nolatan ere, emakumeen kasuan, maiztasun gutxiagoz gertatzen da isolamendu termikoko elementuen instalazioa, hala nola beira bikoitza edo zubi termikoaren haustura. Esan daiteke gorago aztertutako datuei dagokienez dauden distantziak murriztu egin direla, oro har.

**2. koadroa.** Isolamendu termikoak eta argiztapen mota EAEko populazioan.

ISOLAMENDU TERMIKOAK ETA ARGIZTAPEN MOTA EAE-N, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
<b>Isolamendu termikoa</b>			
Eguzki-oihala	9,8	11,3	-1,5
Pertsiana	94,1	94,8	-0,7
Beira tindatuak	2,6	3,3	-0,7
Beira bikoitza	68,8	73,5	-4,7
Zubi termikoaren haustura	44,6	49,3	-4,7
<b>Argiztapen mota</b>			
Argi fluoreszenteak	69	69,9	-0,9
Kontsumo txikiko bonbillak	88,1	88,7	-0,6

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

**Hondakinen** tratamenduari dagokionez, produktu mota desberdinak birziklatzen dituzten gizonen batez besteko ehunekoak emakumeena baino zertxobait handiagoa da, emakumeen % 68,8k eta gizonen % 71,7k (-2,9 puntu) birziklatzen baitituzte hondakinak. Gainera, ikusten da emakumeek joera txikiagoa dutela produktu jakin batzuk birziklatzeko, hala nola telefono mugikorak (-7,9 puntu), produktu kimikoak eta garbiketa-produktuak (-6,5 puntu), hodi fluoreszenteak (-6,1 puntu), altzariak (-4,6 puntu), obra-hondakinak (-4,3 puntu) eta etxeko aparatuak (-4 puntu); aitzitik, sexuen arteko aldeak gutxitu egiten dira eguneroko hondakinen birziklatzean (organikoak -2,7 puntu, papera eta kartoia -2,2 puntu, beira -2 puntu, plastikoak eta metalak -1,7 puntu). Aitzitik, emakumeek gehiago birziklatzen dituzte botikak (+2,9 puntu) eta ehunak (+1,3 puntu). Ildo horretan, ikusten da



birziklatzeko eredu desberdinak daudela, genero-rol tradizionalekin lotu daitezkeenak; izan ere, emakumeek tradizioz gizonekin lotzen diren zereginekin zerikusia duten hondakin gutxiago birziklatzen dituzte (etxeke mantentze-lanak), baina zaintzeko zereginekin lotura duten hondakin gehiago (botikak, arropa)

### 3. koadroa. Hondakinen tratamendua EAEko populazioan.

HONDAKINEN TRATAMENDUA EAE-N, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Botikak	81,5	78,6	2,9
Arropa eta oinetakoak	77,5	76,2	1,3
Pilak eta bateria txikiak	88,7	90,3	-1,6
Plastikoak eta metalak	91,3	93	-1,7
Sukaldeko olioak	61,4	63,3	-1,9
Beira	91,6	93,6	-2,0
Papera eta kartoia	91,8	94	-2,2
Organikoak	73,6	76,3	-2,7
Tresna elektrikoak	72,2	76,2	-4,0
Obra-hondakinak	51,4	55,7	-4,3
Altzariak eta etxeke tresnak	66,5	71,1	-4,6
Hodi fluorezenteak	43,1	49,2	-6,1
Produktu kimikoak eta garbiketa-produktuak	32,3	38,8	-6,5
Telefono mugikorrak	40,2	48,1	-7,9
<b>Batezbestekoa</b>	<b>68,8</b>	<b>71,7</b>	<b>-2,9</b>

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

Beraz, esan daiteke ura eta energia aurrezteko eta haien erabilera jasangarria egiteko joera antzekoa dela emakumeen eta gizonen artean, eta birziklatzeko joera zertxobait handiagoa dela gizonen artean. Halaber, badirudi ohitura horiek etxeke zereginetan dagoen rolen banaketa tradizionalarekin lotuta daudela; izan ere, badirudi emakumeek barneratuago dituztela baliabide batzuen kontsumo errespetutsuagoa egiteko ohitura jakin batzuk ((ura, adibidez); aitzitik, badirudi gizonen jasangarritasun-estrategia oinarritzen dutela baliabideak kudeatzeko gailuei efizientzia handiagoa ematera bideratutako materialen edo beste gailu batzuen erabilera eta birziklatzean, bereziki etxea mantentzearekin lotutako hondakinen birziklatzean.

**Produktu birziklatuak edo birziklagarriak erabiltzeari** dagokionez, badirudi gizonen emakumeek baino gehiago erabiltzen dituztela, bereziki pila edo bateria kargagarriak (-8,1 puntu); aitzitik, emakumeek gehiago erabiltzen dituzte erabilera bakarreko produktuak (+3,3 puntu).

### 4. koadroa. Produktu birziklatuen eta birziklagarrien erabilera EAEko populazioan.

PRODUKTUEN ERABILERA EAE-N, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Erabili eta botatzeko produktuak	91,9	88,6	3,3
Birziklatutako papera	39,7	42,7	-3,0
Ontzi itzulgarriak	32,6	36,1	-3,5
Pila edo bateria kargagarriak	46,2	54,3	-8,1

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

Emakumeen eta gizonen **elikadura**, eta, bereziki, elikadura-kontsumoen ereduak aztertu behar den beste alderdi bat dira, ingurumen-inpaktu nabarmena baitute. EAEko 2018ko Osasun Inkestaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, 2019), emakumeek fruta, barazki eta arrain gehiago jaten dute egunero; aitzitik, gizonek haragi eta hestebete gehiago jaten dute. Haragi-kontsumoa ingurumen-inpaktuaren adierazle garrantzitsu bat da; izan ere, FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera (2018), nekazaritza-produktuek beste elikagai gehienek baino berotegi-efektuko gas gehiago aireratzen dituzte, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisio guztien % 14,5 baitira. Gaur egun, munduko elikadura-sistema lurreko biodibertsitatearen galeraren % 60ren eragile da, lurzoru degradatuen % 33rena, arrain komertzialen ustiapen erabatekoaren edo gehiegizko ustiapenaren % 90 ingururena eta baliabide akuiferoen % 20ren gehiegizko ustiapenarena (GEPE 2020, Euskadiko gastronomia eta elikaduraren plan estrategikoa).

Beste faktore nabarmen bat, ingurumenean inpaktu handia duena, batez ere partikula kutsatzaileen emisioekin eta energia-kontsumo handiekin lotura duelako, **mugikortasunarekin eta garraio bideen erabilerekin** zerikusia duena da<sup>1</sup>. Eustatek egindako Familiak eta Ingurumena inkestako (2015) datuen arabera, norberaren erabilerarako ibilgailuren bat edukitzea askoz ere gutxiagotan gertatzen da emakumeen artean; izan ere, emakumeen % 57,4k eta gizonen % 82,8k dute horrelakorik (-25,4 puntu); alde hori antzekoa da edota handiagoa aurretik aztertutako datuekin alderatuta (Ingurumenaren inkesta - Familiak, EUSTAT, 2008).

Datu hori gizonen ibilgailu pribatuen egiten dituzten joan-etorrien kopuru handiagoarekin lotuta dago. «2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanean» (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, 2017) joan-etorriei buruz egindako azterketan ikus daitezkeenez, emakumeen mugikortasun-aukerak eta gizonenak desberdinak dira, emakumeek askoz gutxiago erabiltzen baitute ibilgailua, emakumeek gizonak baino askoz gehiago mugitzen baitira oinez eta garraio publikoa erabiliz. Izan ere, datuek erakusten dute emakumeen % 28,2 automobileren mugitzen dela normalean; gizonen kasuan, aldiz, % 42,2 (-14 puntu). 2001eko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanean hauek ziren ehunekoak: % 44,8 gizonen kasuan eta % 27,8 emakumeen kasuan.

Azkenik, **produktuen erosketan** eragiten duten alderdi batzuen azterketak erakusten du emakumeek eta gizonen garrantzi bera ematen dietela jasangarritasunarekin lotura duten argudioei, hala nola energia-eraginkortasunari, etiketa ekologikoari edo bertako ekoizpenari.

<sup>1</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu Emakunde egindako gida sektorial honetara: *Generoaren Araberako Eraginaren Ebaluazioa. Garraioa eta Mugikortasuna*. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas evaluaciones 2/eu\\_def/adjuntos/material.sektorialak.garraioa.eta.mugikortasuna.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas evaluaciones 2/eu_def/adjuntos/material.sektorialak.garraioa.eta.mugikortasuna.pdf)

**5. koadroa.** Produktuen erosketa jasangarria egitearekin lotutako alderdien garrantzia, EAEko populazioan.

PRODUKTUAK EROSTERAKOAN EAE-N ERAGITEN DUTEN ALDERDIAK, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Bertan ekoiztako produktua	91,5	91,1	0,4
Etxetresna elektrikoaren energia-eraginkortasuna	94,9	95,5	-0,6
Elikagaien etiketa ekologikoa	84,8	85,6	-0,8

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

#### **Pertzepzioa eta jarrera ingurumenaren aurrean.**

Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkestaren arabera, ingurumenaren egoerari buruzko kezka oso hedatuta dago, oro har, EAEko populazioaren artean; izan ere, herritarren % 92,9k erakutsi dute ingurumenari eragiten dioten arazoekiko **interesa**. Emakumeen % 93,5ek eta gizonen % 92,4k adierazi dute kezkatuta daudela ingurumenaren egoerarekin (+1,1 puntu). Era berean, EAEko populazioaren % 93,1ek uste du ingurumen-neurriak ezartzeko premia dagoela; beraz, emakumeen % 92,7 eta gizonen % 93,5 neurri horiek hartzearen alde daude (-0,8 puntu).

Dena den, ingurumenerako neurri mesedegarrienak hartzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen jarrerak desberdinak dira: ados samar daude uraren gehiegizko kontsumoa mugatzeko eta trafikoaren zarata murrizteko neurriei dagokienez, baina emakumeak ez dira honako hauen hain alde agertzen: energia berriztagarrien parkeak instalatzea (-5,8 puntu), energia alternatiboengatik gehiago ordaintzea (-5,2 puntu) edo garraio pribatuari murrizketak ezartzea (-4,5 puntu). Neurri txikiagoan, gizonak turismoari edo erregaiei zergak ezartzearen aldekoagoak dira emakumeak baino (-2,2 puntu eta -1,7 puntu, hurrenez hurren), baita etxeko zaborrak bereizteko derrigortasunaren aldekoagoak ere (-1,4 puntu).

**6. koadroa.** Ingurumen-neurri jakin batzuekiko aldeko jarrera EAEko populazioan.

INGURUMEN-NEURRIKIKO ADOSTASUNA EAE-N, 2015.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Trafikoaren zarata murriztea	84,5	84,6	-0,1
Uraren gehiegizko kontsumoa mugatzea	57,0	57,9	-0,9
Etxeko zaborrak bereiztera behartzea	35,5	36,9	-1,4
Erregaiei zerga bat ezartzea	59,6	61,3	-1,7
Turismoari zerga bat ezartzea	27,0	29,2	-2,2
Garraio pribatuari mugak ezartzea	33,5	38,0	-4,5
Energia berriztagarriko parkeak instalatzea	54,9	60,7	-5,8
Energia alternatiboengatik gehiago ordaintzea	16,8	22,0	-5,2
<b>Guztira</b>	<b>92,7</b>	<b>93,5</b>	<b>-0,8</b>

Egileak egina, Eustaten Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta oinarri hartuta (2016).

Klima-aldaketagatiko kezka oso hedatuta dago EAEko herritarren artean. «Klima-aldaketa eta energia» azterlanaren arabera (Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2017), biztanleen % 83 kezkatuta daude fenomeno horrekin; zehazki, emakumeen % 85ek eta gizonen % 80k dute jarrera hori (+5 puntu). Nahiz eta herritarren % 88 ados dauden klima-aldaketaren aurka borroka egiteko pertsona bakoitzak bere energia-kontsumoa murriztu behar izatearekin eta % 85 ados dauden erosotasun batzuei uko egin behar izatearekin, hauek dira neurri handiagoan ez jarduteko argudiatu diren arrazoi nagusiak: erosotasuna, kostua edo denbora-gabetasuna (emakumeen % 26, gizonen % 23), zer ekintza egin behar diren ez ezagutzea (emakumeen % 27, gizonen % 19) eta enpresek eta gobernuek jardun behar dutela uste izatea (emakumeen % 18, gizonen % 26), eta ikusi da emakumeen kopurua handiagoa dela zer jarduketa pertsonal egin behar den ez dakitenen artean (-8 puntu) eta gizonen kopurua handiagoa dela erantzukizuna enpresen eta administrazioaren ardurapean uzten dutenen artean (+8 puntu).

Klima-aldaketaren aurkako neurri orokorrak ezartzeko jarrerari dagokionez, emakumeek nahiz gizonak iritzi bera dute, oso alde agertu baitira honako hauei dagokienez: energia berriztagarrien garapena handiagoa izatea, garraio publikoa bultzatzea eta ibilgailu elektrikoak erosteari pizgarriak ezartzea; aitzitik, zergen edo prezioen igoera bezalako ekimenek gizartearen babes txikiagoa dute. Emakumeak gasolinaren prezioa igotzearen aldekoago agertu dira gizonak baino (+3 puntu); aitzitik, gizonak aireko bidaiei zerga handiagoak jartzearen (-9 puntu), ibilgailu elektrikoaren erosketaren sustatzearen (-6 puntu) eta kutsatzen duten ibilgailuei zerga gehiago jartzen (-4 puntu) aldekoago agertu dira emakumeak baino.

**7. koadroa.** Klima-aldaketaren aurka borroka egiteko jarduketekiko aldeko jarrera EAEko populazioan.

KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO NEURRIEKO ADOSTASUNA EAE-N, 2017.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Gasolinaren prezioa igotzea airearen kutsadura murrizteko	22	19	3
Garraio publikoa bultzatzea	92	93	-1
Energia berriztagarriak gehiago garatzea	94	96	-2
Gehiago kutsatzen duten ibilgailuei zerga gehiago jartzea	56	60	-4
Ibilgailu elektrikoaren erosketaren sustatzea	76	82	-6
Hegazkinen bidaiei zerga handiagoak jartzea	29	38	-9

Egileak eginga, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen «Klima-aldaketa eta energia» azterlana oinarri hartuta (2017).

Ikus daitekeenez, emakumeek eta gizonak antzeko kezka-maila dute ingurumenari eragiten dieten arazoei buruz, baina emakumeak kezkatuago daude klima-aldaketari dagokionez. Gainera, prebentzioko neurriak eta neurri aringarriak ezartzearen aldeko jarrera orokorra badago ere, ikusten da aldeak

daudela neurri horien lehentasunei dagokienez; izan ere, gizonak neurri horiek ezartzearen aldekoagoak dira emakumeak baino.

Ingurumen-arloko boluntariorako edo aktibismoko jardueretan emakumeek eta gizonak duten **partaidetzari** dagokionez, ikusten da gizonak emakumeak baino zertxobait aktiboagoak direla: emakumeen % 23k eta gizonen % 24,9k egiten dute ingurumenarekin lotura duen jardueraren bat (-1,9 puntu). Zehazki, bi sexuak antzeko neurrian aritzen dira erakundeekin elkarlanean, boluntariora egiten dute edo arazoak salatzen dituzte, baina emakumeek zertxobait gutxiago hartzen dute parte manifestazioetan (-1,5 puntu), aurreko datuetan adierazi zen bezala (Ingurumenaren inkesta - Familiak) eta egoera kaltegarrien aurka gutxiago sinatzen dute (-1,4 puntu).

**Emakumeak ingurumenaren ekoizpen-sektorean.** Biztanleria Aktiboaren 2019ko Inkestak (NEI, 2020) erakusten du ingurumenarekin lotura duten sektoreetan enplegatutako emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa dela, bereziki garraioan (-5,4 puntu) eta nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan (-3,7 puntu), eta energiarekin eta urarekin lotura duten jardueretan ez da alde nabarmenik ikusten.

**8. koadroa.** Emakumeen eta gizonen presentzia ingurumenarekin lotutako enpleguetan, Estatuan, 2019an, EJSN-2009ren arabera (guztizko enpleguaren gaineko %-a).

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ENPLEGUAK 2019AN.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	2,0	5,7	-3,7
A1. Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak	2,0	5,1	-3,1
A2. Basogintza eta basoen ustiaketa	0,0	0,2	-0,2
A3. Arrantza eta akuikultura	0,0	0,3	-0,3
B. Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire egokitua hornitzea	0,3	0,6	-0,3
C. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinak kudeatzea eta kutsadura garbitzea	0,3	1,1	-0,8
D. Garraioa eta biltegiatzea	2,3	7,7	-5,4

Egileak egina, Biztanleria Aktiboaren 2019ko Inkesta (EIN, 2020) oinarri hartuta.

Garraioa, energiari dagokionez duen garrantziarengatik eta ingurumenean dituen eraginengatik sektore eraginkorrenetako bat dena, maskulinizatuta dagoelako eta emakumeek bertan duten presentzia eskasa delako nabarmentzen da. «2018. urteko Euskadiko Garraioaren Panoramika» txostenaren arabera (Oteus, Euskadiko Garraioaren Behatokia, 2019), emakumeak sektore honetan lan egiten duten pertsonen % 18,1 dira EAEn; gizonak, aldiz, % 81,9 dira (-63,8 puntu).

## 2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Ingurumenarekin lotutako baliabideak (prestakuntza, enplegua, informazioa edo mugikortasuna, adibidez) lortzeko garaian emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunak emakumeek eta gizonen sektorean duten presentzia eta parte-hartzea desberdina izatea eragiten du, ondorengo atalean aztertuko denez. Halaber, substantzia kimikoengatiko edo erradiazioengatiko kutsadurak modu desberdinean eragiten du emakumeen eta gizonen osasunean.

### Osasuna

Nekazaritzak, ehungintzak, osasungintzak, industria kimikoak edo farmazia-industriak, besteak beste, **produktu kimikoak edo irradiazio ionizatzaileak** erabiltzen dituzte eta horiek kaltegarriak izan daitezke emakumeen eta gizonen osasunerako, ingurunean edo lantokian haien eraginpean daudenez (Valls-Llobet, 2010). Alabaina, pertsonen osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen ondorio horiek ez diete berdin eragiten emakumei eta gizoni; izan ere, hainbat faktorek parte hartzen dute, hala nola substantzia motak, esposizio motak eta esposizio-mailak eta alderdi erabat biologikoak.

Emakumeen gorputzak kutsadurarako eta kutsaduraren ondorioz sortzen diren gaixotasun berrietarako joera handiagoa du. Hori egiaztatzen dute Carne Valls-Llobet endokrinologo espainiarrak Medio ambiente y salud. Mujeres y hombres en un mundo de nuevos riesgos liburuan jasotako 2010eko azterlanek.

Jarraian, zenbait motatako material eta substantziekiko esposizioak emakumei nola eragiten dien azaltzen duten adibide batzuk deskribatzen dira; adierazi behar da, nolana ere, esposizio horien eraginari buruz genero-ikuspegitik egindako azterketak emakumeetan eta gizonetan izandako eragin desberdinetan jarri beharko lukeela arreta. Esposizio horiek historikoki alboratu egiten ziren lan-arriskuen azterketetan, eragin desberdin horiek ez baitituzte kontuan hartu edo emakumeen eta gizonen artean berdinak direla onartu izan baitute.

Horrela, ingurumenean eta lantokietan dauden substantzia kimiko lipodisolbagarriak errazago meta daitezke emakumeetan ehun koipetsu gehiago dutelako. Era berean, garbiketa-produktuekiko (intsektizidak, disolbatzaileak edo bestelakoak) laneko eta etxeke esposizioak eragin handiagoa du emakumeengan; izan ere, produktu toxikoak errazago sartzen dira emakumeen nerbio-sistema zentrolean hainbat faktoreren bitartez. Faktore horiek estrogenoak, estres fisikoa eta mentala edo hileko odol-galeraren ondoriozko burdina-estresak dira. Beraz, horrek erakusten du emakumeen kalteberatasuna handiagoa dela produktu toxikoekiko esposizioari eta produktu horien eraginei dagokienez (Vall-Llobet, 2010).

Ugalketa-osasunari dagokionez, metal astunekiko esposizioa (beruna, merkurioa edo kadmioa) ziklo menstrualaren nahasmenduekin eta arazo ginekologikoekin (endometriosisa, umetokiko miomak) lotu da.

Azkenik, bularreko minbizia izateko arriskua handitzeari dagokionez, erradiazio ionizatzaileekiko esposizioa arrisku handiago batekin lotu da eta bularreko minbiziaren intzidentzia handiagoa duten lanbideak identifikatu dira: uhin elektromagnetikoekin lan egiten duten emakumeak, osasuneko profesionalak, botikariak, ile-apaintzaileak edo artistak, horien guztien lan-baldintzek estres fisikoa eta mentala eta substantzia kimikoekiko edo irradiazioekiko esposizioa elkartzen baitituzte (Valls-Llobet, 2010).

Substantzia kaltegarrien aurrean arrisku handiagoa izate hori zenbait faktorek bultzatzen dute. Faktore horiek emakumeek **etxeko lanari** denbora gehiago eskaintzea eta **lanbide** jakin batzuetan (osasuna, irudi pertsonala edo garbiketa) presentzia handiagoa izatea dira. Bestalde, Denbora-aurrekontuen 2018ko inkestaren arabera (Eustat, 2019), emakumeek gizonak baino 71 minutu gehiago eskaintzen dizkiote, batez beste, etxeko zereginei egunero (3 ordu eta 6 minutu emakumeek, eta ordu 1 eta 55 minutu gizonak); horren ondorioz, toxikoak izan daitezkeen substantziekiko esposizio-denbora handiagoa da emakumeen kasuan. Bestalde, Biztanleria Aktiboaren 2019ko Inkestak (ENI, 2020) erakusten du emakumeak gizonak baino 6,1 puntu gehiago daudela biztanleria landunari dagokionez EJSNren 86. epigrafean (Osasun-jarduerak) eta 5,1 puntu gorago 97. epigrafean (Etxeetako jarduerak, etxeetako langileen enplegatzaile gisa). Nolanahi ere, horri dagokionez, kontuan izan behar da Gizarte Segurantzaren afiliatu gabe dauden etxeetako langileen kopurua. Ez dago daturik ile-apaintzetaren eta bestelako edertasun-tratamenduen jardueran emakumeek duten presentziari buruz, jardun hori jarduera gehiago barne hartzen dituen epigrafean dagoelako, baina irudi pertsonaleko lanbide-heziketako ikasketetan emakumeen presentzia handiagoa izateak agerian jartzen du emakume gehiagok lan egiten dutela sektore horretan. Horrela, Eskola Jardueraren Estatistikaren arabera (Eustat, 2020), zeina 2018-2019 ikasturteko datuetan oinarritu zen, emakumeak lanbide-familia horretako ikasleen % 88,8 dira erdi-mailako titulazioetan eta % 94,2 goi-mailako titulazioetan.

Nolanahi ere, laneko osasunaren ikuspegitik, informazio gutxi dago substantzia kimikoekiko esposizioak osasunean dituen ondorioei buruz, eta informazio toxikologikoaren falta are handiagoa da emakumeen kasuan. Hori gertatzen da, alde batetik, eskuragarri dauden azterketak gizonak presentzia handiagoa duten sektoreetan egin direlako nagusiki (Kataluniako Generalitateko Lan Saila, 2010) eta, bestetik, emakumeak azterketa toxikologikoetan aintzat hartzen direnean, edo ez delako emakumeen espezifikotasun biologikoa kontuan hartzen edo emakumeen ugaltze-ahalmena soilik hartzen delako kontuan (Sen, George eta Östlin, 2005).

Halaber, zaila da kausalitate-erlazioak ezartzea erabilitako produktuen eta pertsonen osasunean dituzten ondorioen artean; izan ere, pertsonak produktu

horien eraginpean egon daitezke zenbait inguruetan, bai giro-esposizioaren bidez, lan-esposizioaren bidez, bai hiri handietan edo nekazaritza-eremuetan (Valls-Llobet, 2010). Izan ere, produktu eta eguneroko egoera askotan egon daitezke substantzia toxikoak, ibilgailuek, industriek edo eraikinek aireratutako partikula kutsatzaileetatik hasita, intsektizida edo pestizida, plastiko, kosmetikako produktu edo elikakatean dauden PCBekin (poliklorobifeniloak) amaitzeraino.

### **Klima-aldaketa**

Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Erakundeak argitaratutako «Género y cambio climático: un diagnóstico de situación» txostenean (2020) adierazten denez, klima-aldaketak emakumeengan eta gizonengan duen eraginari buruz sexuaren arabera banakatutako azterketa gutxi badaude ere, badakigu tenperatuaren igoerak osasunean eragina duela eta fenomeno horrek **energia-pobrezian eta nahitaezko migrazioetan** eragina duela, kasu guztietan modu desberdinean emakumeengan eta gizonengan.

Alde batetik, ikusten da emakumeak gizonak baino sentikorraagoak direla tenperatura altuetara, eta muturreko beroaren nahiz hotzaren aurrean, emakumeak kalteberagoak direla. Bestalde, tenperaturaren oszilazioek arriskuan jartzen dituzte argiaren gastuak ordaintzeko baliabide gutxiago dituzten pertsonak eta horrek gehiago eragiten die emakumeei, emakumeek gizonak baino erosahalmen txikiagoa baitute, bai soldatei dagokienez bai pentsioei dagokienez. Diru-sarrerekin lotzeaz gain, energia-pobrezia beste faktore batzuekin ere lotzen da, hala nola etxeko unitatearen osaerarekin eta etxebizitzaren ezaugarriekin. Azkenik, beste herrialde batzuetako testuinguruan, kalkulatu da errefuxiatu klimatikoen % 60 emakumeak direla. Ondorioz, ikusten da klima-aldaketak gehiago eragiten diela klima-aldaketa sortzen gutxiago lagundu dutenei, biztanleria kaltebereneko sektoreetan eragiten baitu bereziki.

### **Prestakuntza**

Ingurumenarekin lotutako lanbide-familietako **lanbide-heziketako** EAEko ikasketetan emakumezko ikasleek duten presentzia gizonetzko ikasleena baino askoz txikiagoa da, eta ikusten da ikasketa batzuk maskulinizatuta daudela, aurreko azterketetako datuetan, 2011-2012 ikasturtekoetan, ikusten zen bezala. Izan ere, ia adar guztietan, Segurtasuna eta ingurumenaren goimailako graduan izan ezik (emakumeen % 41,8), emakumezko ikasleen ehunekoak % 20tik beherakoak dira, eta itsaso eta arrantzako ikasketetan eta energiari eta urari buruzko ikasketetan dagoen arrakala nabarmendu behar da bereziki.



**9. koadroa.** Ingurumenarekin lotutako erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketetan 2018-2019 ikasturtean matrikulatutako ikasleak EAEn.

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IKASKETETAKO IKASLEAK EAE-N. 2018-2019 IKASTURTEA.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
<b>Erdi-maila</b>			
Nekazaritza	16,0	84,0	-68,0
Zurgintza, altzarigintza eta kortxogintza	14,4	85,6	-71,1
Itsasoa eta arrantza	5,9	94,1	-88,3
<b>Goi-maila</b>			
Segurtasuna eta ingurumena	41,8	58,2	-16,4
Zurgintza, altzarigintza eta kortxogintza	20,6	79,4	-58,8
Nekazaritza	17,0	83,0	-66,0
Energia eta ura	8,1	91,9	-83,8
Itsasoa eta arrantza	2,6	97,4	-94,8

Egileak egina, Irakaskuntzaren Estatistika oinarri hartuta (Eustat, 2020).

Emakumeen eta gizonen presentzia desberdina da ingurumenarekin lotutako unibertsitate-ikasketetan ere. Horrela, emakumezko ikasle gehien matrikulatuta dauden graduak Biologia (% 61,9), Ingurumen-zientziak (% 48,9) eta Ingurumen-ingeniaritza (% 47,7) dira. Alabaina, emakumezko ikasleen kopurua nabarmen jaisten da sektore maskulinizatuagoekin lotutako ingeniaritzetan, hala nola meatzaritza, itsasoan edo energian. Hortaz, emakumeak gehiago matrikulatzen dira ingurumena zaintzearekin eta ikertzearekin lotutako graduetan, gizonak, aldiz, ingeniaritzako graduetan gehiago.

**10. koadroa.** Ingurumenarekin lotutako unibertsitate-ikasketetan 2018-2019 ikasturtean EAEn matrikulatutako ikasleak.

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GRADUETAKO IKASLEAK EAE-N. 2018-2019 IKASTURTEA.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
Biologia	61,9	38,1	23,8
Ingurumen-zientziak	48,9	51,1	-2,3
Ingurumen-ingeniaritza	47,7	52,3	-4,5
Geologia	40,8	59,2	-18,3
Energia berriztagarrien ingeniaritza	32,2	67,8	-35,5
Meatzaritza eta energia teknologiaren ingeniaritza	28,0	72,0	-43,9
Energiaren ingeniaritza	16,3	83,7	-67,3
Itsas ingeniaritza	9,9	90,1	-80,2

Egileak egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2020).

### Enplegua:

Ildo horretan, tradizionalki ingurumenari lotutako jarduera-sektoreak (lehen sektorea, hondakinen eta hondakin-uren tratamendua, baso-kudeaketa...) eta ekonomia berde deitutakoak eskaintzen dituen merkatu-hobi berriak bereizi behar dira. Nazio Batuen Ingurumen Programak (2011) honela definitzen du merkatu-hobi berria: pertsonen ongizatea eta ekitate soziala hobetzen duena, eta, aldi berean, ingurumen-arriskuak eta eskasia

ekologikoak murizten dituen. Ingurumenarekin lotutako enpleguak potentzial gero eta handiagokoak dira EAEko ekonomikoarentzat, ingurumen-sektore indartsuetan merkatu-hobi berriak izateko aukera ematen baitute. «Merkatu eta enplegu berdeak 2020: EAEko industriaren egitekoa ekonomia jasangarria lortzeko» txostenean (Ihobe, 2011) aurreikusi zen 2020. urterako 12.000 enplegu berri sortuko zirela merkatu berdean eta energia berriztagarrien, eraikuntza jasangarriaren eta industria efizientearen rola nabarmendu zen. Ildo horretan, aztertu behar da, data hori iristen denean, enplegua sortzeko potentzial hori bete den eta eraginik izan duen emakumeek sektorean duten presentzian.

Aurreko atalean emakumeek eta gizonak ingurumenarekin lotutako jardueretan duten presentziari buruz egin den azterketa orokorra osa daiteke bere gain hartzen dituzten lanaldi motei buruzko azterketarekin. Horrela, Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera (INE, 2020), ingurumenarekin lotutako jardueretan lan egiten duten emakumeek gehiago lan egiten dute lanaldi partzialetan eta gutxiago lanaldi osoetan. Izan ere, emakumeek erantzukizun handiagoa dute seme-alaben zaintzan eta etxeko zereginetan, eta hori oztopo izan daiteke sektore horietako zenbait lanpostutara gizonetzkoen baldintza berdinetan sartu ahal izateko. Ildo horretan, gerta daiteke jarduera batzuk, hala nola garraioa, oso zailak izatea emakume askoren familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eta haien eskakizunei eta lan-baldintzei erantzun ahal izateko.

**11. koadroa.** Emakumeen eta gizonen lanaldi mota ingurumenarekin lotutako enpleguetan, Estatuan, 2019an, EJSN-2009ren arabera.

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ENPLEGUAK, LANALDI MOTAREN ARABERA, ESTATUAN, 2019AN.	Lanaldi partziala			Lanaldi osoa		
	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E/G
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	13,4	4,9	8,5	86,6	95,1	-8,5
B. Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua hornitzea	11,4	1,5	9,9	88,6	98,5	-9,9
C. Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinak kudeatzea eta kutsadura garbitzea	15,3	3,3	12,0	84,7	96,7	-12,0
D. Garraioa eta biltegiatzea	20,0	5,0	15,0	80,0	95,0	-15,0

Egileak egina, Biztanleria Aktiboaren 2019ko Inkesta (EIN, 2020) oinarri hartuta.

Ingurumenarekin zerikusia duten lanbide-heziketako ikasketetan eta unibertsitate-graduetan emakumeen parte-hartze maila apalagoa izateak erakusten du emakumeak mugatuta daudela prestakuntza-profil espezializatuak eskatzen diren lanpostuetan sartzeko. Datu berriagorik ez dagoenez, «Enplegu berdea ekonomia jasangarri batean» (Biodibertsitate

Fundazioa eta Espainiako Jasangarritasunaren Behatokia - EJB, 2010) txostena hartu da oinarritzat, txosten horretan lanbide-heziketako eta unibertsitate-graduetako ikasketen eskaria aztertu baitzen. Txosten horretan ikus daitekeenez, sektorean enplegatutako pertsonen % 25,4k lanbide-heziketako ikasketak zituen, eta % 35,6k unibertsitate-ikasketak. Lanbide-heziketako edo unibertsitateko ikasketak egindako enplegatu gehien zituzten jarduerak enpresentzako ingurumen-zerbitzuak, ingurumen-hezkuntza eta energia berriztagarriak ziren.

### **Informazioa**

Emakumeek nahiz gizonek uste dute nahikoa informazioa daukatela ingurumenari eragiten dieten arazoei buruz, baina hitz zehatzagoen ezagutza nabarmen jaisten da, bi alderdi horietan bi sexuen artean aldeak daudela ikusten baita. Halaber, ikusten da bitarteko desberdinak erabiltzen direla informazioa eskuratzeko.

Eskuragarri dagoen "Ekobarometro Soziala" azken txostenaren arabera (Ihobe, 2011), Euskadiko biztanleriaren % 60k adierazi du nahiko informatuta dagoela ingurumen-arazoei buruz. Zehazki, emakumeen % 58k adierazi dute nahiko informatuta daudela; aitzitik, gizonen % 63k adierazi dute nahiko informatuta daudela gai horri buruz (-5 puntu). Aitzitik, nahiko desinformatuta daudela adierazi duten emakumeen kopurua gizonen kopurua baino 5 puntu handiagoa da (emakumeen kasuan % 27, gizonen kasuan % 22). Klima-aldaketari buruz duten informazio-mailari buruz zehazki galdetu zaienean herritarrei, emakumeen % 42k eta gizonen % 44k adierazi dute nahikoa informazio dutela fenomeno horren kausei eta ondorioei buruz.

«Biodibertsitate» hitza ezagutzeari dagokionez, nabarmen handiagoa da hitz hori entzun eta berorren esanahia ezagutzen duten gizonezkoen ehunekoa (emakumeen % 24k eta gizonen % 35ek entzun dute eta badakite zer esan nahi duen). Alderantziz, handiagoa da hitz hori inoiz entzun ez duten emakumeen ehunekoa (emakumeen % 30 eta gizonen % 23).

Ezjakintasun orokorra dago Natura 2000 Sarearen eta Tokiko Agenda 21en inguruan, baina lehenari buruzko ezjakintasuna handiagoa da emakumeen artean. Alde batetik, emakumeen % 90ek eta gizonen % 85ek ez dute Natura 2000 Sareari buruz hitz egiten entzun; aitzitik, emakumeen % 7k eta gizonen % 13k entzun dute hitz hori. Bestetik, emakumeen % 72k eta gizonen % 70ek ez dute ezer entzun Tokiko Agenda 21i buruz; aitzitik, emakumeen % 10ek eta gizonen % 10ek dezente entzun dute.

Ingurumen-inpaktua murrizten lagunduko lukeen kontsumoa egin ahal izateko EAeko gizarreak beharrezkoa duen informazio-mailari buruz esan behar da esanguratsua dela oraindik informazio egokirik ez dutela dioten pertsonen kopurua (% 29, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan); emakumeen % 61ek eta gizonen % 63k diote, ordea, nahiko gustura edo oso gustura daudela kontsumo-praktika jasangarriagoak praktikara eramán ahal izateko daukaten informazioarekin. Nabarmendu behar da emakumeek eta gizonek ezagutza-

maila desberdina dutela, dagokion produktu motaren arabera. Esate baterako, emakumeak hobeto informatuta daude garbiketarekin eta norberaren higieనేarekin lotura duten produktuen inguruan, eta badirudi gizonak informazio gehiago dutela etxetresna elektrikoei eta basogintzako zenbait produkturi buruz.

Ikusten da desberdintasun batzuk daudela gizonak eta emakumeak ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko erabiltzen dituzten bitartekoei dagokienez. Izan ere, badirudi gizonak batez ere Internetetik (% 23 emakumeen kasuan, % 33 gizonen kasuan) eta prentsatik (% 62 emakumeen kasuan, % 69 gizonen kasuan) jasotzen dutela informazioa, baina emakumeak diote gehiago erabiltzen dituztela telebistako berriak (% 80 emakumeen kasuan, % 76 gizonen kasuan), aldizkariak (% 18 emakumeen kasuan, % 15 gizonen kasuan) eta harreman pertsonalak (% 18 emakumeen kasuan, % 15 gizonen kasuan).

### Mugikortasuna

Ingurumenean eragin handienetakoa duen faktoreetako bat garraio-sistemen plangintzarekin eta pertsonen mugikortasunarekin lotuta dago. «2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanaren» arabera (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, 2017), emakumeak nahiz gizonak antzeko joan-etorri kopurua egiten dute batez besteko lanegun batean. Hala eta guztiz ere, erabiltzen diren garraiobideak aldatu egiten dira bi sexuen artean; izan ere, emakumeak gehiago aukeratzen dute garraio publikoa eta gizonak automobila. Horrela, emakumeen % 15,4 mugitzen dira garraio publikoan; gizonen kasuan, aldiz, % 8,2 dira<sup>2</sup> (+7,2 puntu) eta emakumeen % 28,2k autoa aukeratzen dute; gizonen kasuan, aldiz, % 42,2k (-14 puntu). Bitarteko ez motordunak (oinez, bizikletaz) gehiago erabiltzen dituzte emakumeak; izan ere, emakumeen % 53,4k eta gizonen % 45,1ek aukeratzen dituzte bide ez-kutsagarri horiek (+8,3 puntu). Emakumeak garraio publikoaren eta bitarteko ez motordunen erabilera handiagoa egiten dute gizonak baino; hurbilago daude mugikortasun jasangarriko ereduetatik, gizonak ibilgailu pribatuaren erabileraren mendekotasun handiagoa baitute. Mugikortasun-eredu desberdin horiek zenbait faktorek mugatzen dituzte, horien artean, denboraren banaketa eta ekoizpen-lanaren eta ugalketa-lanaren arteko elkarrekotasuna dira nagusi.

Aurrekoarekin lotuta, emakumeak gizonak baino joan-etorri gehiago egiten dituzte udalerrri barruan (emakumeen % 71,8, gizonen % 63,5), eta emakumeak distantzia laburreko joan-etorri gehiago egiten dituzte (+8,3 puntu); aitzitik, gizonen mugikortasuna handiagoa da eskualde barruan eta lurralde barruan. Mugitzeko arrazoiei dagokienez, arrazoi nagusia lana da bi sexuetan, baina lan-arrazoiengatik mugitzen diren gizonen ehunekoa emakumeena baino nabarmen handiagoa da (emakumeen % 26, gizonen % 34,6). Bigarren postuan aisiak eragindako joan-etorriak daude (emakumeen % 24,6, gizonen % 28,1); kasu horretan, gizonak emakumeak baino zertxobait gehiago

<sup>2</sup> Errepide bidezko eta tren bidezko garraio publikoa.

---

mugitzen dira. Nolanahi ere, emakumeak gehiago mugitzen dira etxeko erosketak egiteko eta lagun egiteko edo laguntzeko, eta horrek agerian jartzen du pertsonen zainketaren eta etxeko zereginen banaketa tradizionala gaur egun ere emakumeen esku dagoela neurri handiago batean; aitzitik, alde txiki batzuk daude kudeaketek eragindako joan-etorrietan (kudeaketa pertsonalak, medikoak eta etxekoak).

### 2.3. EMAKUMEEK ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

«The Environment and gender index. EGI» (UICN, 2013) txostenean azaldu zenez, emakumeek ingurumen-erantzukizuneko postuetarako sarbide txikiagoa dute maila guztietan, bereziki zuzendaritzako maila handienetan; beraz, orain arte ez da genero-orekarik lortu esparru horretan.

Alde batetik, «Review of the implementation in the EU of area K of the Beijing platform for action» txostenak (Genero Berdintasunerako Erakunde Europarra, EIGE, 2013) –ministerio-mailan erabakiak hartzeko postuetan, klima-aldaketarekin (ingurumena, garraioa eta energia) lotura dutenetan, emakumeek eta gizonak duten presentzia aztertu zuenak– dio goi-mailako postu guztien % 25,6 emakumeek betetzen dituztela; Espainiako ehunekoak zertxobait handiagoa da (% 26,7). Bestalde, «Género y cambio climático: un diagnóstico de situación» argitalpenean jasotzen denez, ingurumenarekin lotura duten eta Estatuan dauden enpresa guztien % 25,5ek emakumeen % 40tik gorako presentzia dute beren administrazio-kontseiluetan.

Jarraian, EAEko zuzendaritza-kargu publikoetan dagoen sexuaren araberako banaketa aztertuko dugu, Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak ez ezik, ingurumen-eremuko kontsultako eta aholkularitzako beste erakunde eta organo batzuk ere kontuan hartuta.

**Zuzendaritza-kargu publikoak.** Emakumeek ingurumenaren arloan eskumena duten EAEko zuzendaritza-erakunde publikoetako erantzukizun-postuetan duten presentzia ez da orekatua gaur egun, emakumeen parte-hartzea % 36,6 baita, gizonena, aldiz, % 63,4 (16 emakume eta 25 gizon zuzendaritza-kargu publikoetan). Horren inguruko datuak ondorengo koadroan ikus daitezke.

**12. koadroa.** Emakumeak eta gizonak zuzendaritza-kargu publikoetan. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak

EMAKUMEEK ETA GIZONEK EUSKO JAURLARITZAN –ZUZENDARITZA-KARGUETAN– DUTEN PRESENTZIA				
EUSKO JAURLARITZA	Saila eta Sailburuordetza		Zuzendaritzak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	2	2	1	6
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak		2	1	2
<b>Guztira</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>8</b>

EMAKUMEEK ETA GIZONEK FORU ALDUNDIETAN DUTEN PRESENTZIA				
FORU ALDUNDIAK: ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA	Ahduna		Zuzendaritzak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
AFA. Ingurumena eta Hirigintza		1	1	
AFA. Nekazaritza		1	1	
AFA. Bide-azpiegiturak eta Mugikortasuna	1			1
BFA. Iraunkortasuna eta Ingurune naturala	1		2	
BFA. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria		1		1
BFA. Lurralde Garapena		1		1
GFA. Ingurumena eta Obra Hidraulikoak		1	1	1
GFA. Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea		1	1	1
GFA. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	1			2
GFA. Bide-azpiegiturak	1		1	1
<b>Guztira</b>	<b>4</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>

Egileak egina, erakunde bakoitzaren web-orrietako datuak oinarri hartuta (2021eko otsaila)

### Kontsultako eta aholkularitzako beste erakunde eta organo batzuk

Eskuragarri dauden datuen arabera, hiru erakunde publikotako administrazio-eta/edo zuzendaritza-egituren sexuaren araberako banaketa aztertu da, lurraldeko edo tokiko beste erakunde batzuetako datuak eskuratzea zaila izan baita.

**13. koadroa.** Emakumeen eta gizonen presentzia x-(en) eta ingurumenarekin lotura duten EAEko enpresa publikoen presidentet<sup>z</sup>an.

EMAKUMEEEN ETA GIZONEEN PRESENTZIA EAE-KO ENPRESA PUBLIKOETAN	Emakumeak		Gizonak		Guztira	Lehendakaritza
	Nº	%	Nº	%		
Ihobe <sup>3</sup>	4	50,0	4	50,0	8	Emakumea
Uraren Euskal Agentzia, URA <sup>4</sup>	4	66,7	2	33,3	6	Emakumea
Energiaren Euskal Erakundea (EEE) <sup>5</sup>	3	25,0	9	75,0	12	Emakumea

Egileak egina, web-datuak oinarri hartuta.

Ingurumenaren sektorearekin lotura duten **elkarteei edo beste erakunde batzuei** dagokienez, Aclimak (Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster

<sup>3</sup> 2021eko urtarilean berreskuratua hemendik:<https://www.ihobe.eus/ihoberi-buruz>

<sup>4</sup> 2021eko urtarilean berreskuratua hemendik:<https://www.uragentzia.euskadi.eus/zer-da-ura/organiagrama/u81-000312/eu/>

<sup>5</sup> 2021eko urtarilean berreskuratua hemendik:  
<https://www.eve.eus/EVEWeb/media/EVE/pdf/transparencia/eve/06-Composicion-Consejo-Direccion-EVE.pdf/>

Elkartea)<sup>6</sup> presidente bat eta presidenteorde bat ditu eta haren zuzendaritza-batzordea 18 pertsonak osatzen dute; horietatik 4 emakumeak dira (% 22,2). Basoa Fundazioak<sup>7</sup> presidente bat eta presidenteorde bat ditu eta haren Patronatua 5 pertsonak osatzen dute, guztiak gizonak. Bestalde, Izaitek (Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarte) emakumezko presidente bat du; ez dugu elkarte horren zuzendaritza-batzordeari buruzko informaziorik eskuratu.

**Ingurumen-boluntariotzari** dagokionez, «Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn» (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, 2017) azterlanean adierazten da boluntariotza-ekintzaren bat egiten duten pertsona guztien % 4,5ek ingurumenean eta animalien babesean aritzen diren erakundeetan egiten dutela; ehuneko hori % 2,1 zen 2012an. Ikusten da emakumeen partaidetza handiagoa dela ekintza horietan; izan ere, emakumeen % 6,8 eta gizonen % 2,3 dira boluntario eremu horietan (+4,5 puntu). Oro har, elkarlanean gehien aritzen diren adin-tarteak 18-29 urtekoa eta 30-39 urtekoa dira, azken hori gutxiago.

Euskadin ordezkariak duten **erakunde ekologista nazionalen** osakerari dagokionez, Greenpeace Espainia<sup>8</sup> aipa dezakegu. Erakunde horren Kontseilua, organo erabakitzaile goren, bazkideen 75 ordezkari eraten dute. 60 kide zuzenean aukeratzen dituzte bazkideek autonomia-erkidegoei dagozkien barrutietan, eta 15 kide gehiago kargua uzten duen Kontseiluak aukeratzen ditu. Kontseilurako azken bozketetan, aukeratutako 60 pertsonatik, % 58,33 (35) emakumeak izan ziren.

Bestalde, Ekologistak Martxan<sup>9</sup> talde ekologisten konfederazioak –1998an sortu zenak eta estatu osoko ehunka taldek, federazioen inguruan bilduta (Euskal Herria barne), osatzen dutenak– Konfederazio Idazkaritza du Konfederazioa hiru urtez ordezkatzeko eta kudeatzeko duen organo gisa. 2018-2021 aldian 7 emakume eta 6 gizon osatu dute.

Nazioartean ere badaude erakunde ekofeministak, batez ere emakumeek osatzen dituztenak eta emakumeak buruzagi dituztenak; esate baterako: Gender CC, WECF International, WEDO.

Azkenik, eta Nazio Batuen mailan, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (KANBEK) parte diren erakundeetan gaur egun<sup>10</sup> kide direnak zehaztuko ditugu: Alderdien Konferentziak (COP), Kyotoko Protokoloa (CMP), Parisko Akordioa (CMA) eta Erakunde Subsidiarioak (SB).

<sup>6</sup> 2021eko urtarrilean berreskuratua hemendik: <https://aclima.eus/eu/gara/>

<sup>7</sup> 2021eko urtarrilean berreskuratua hemendik: <https://basoa.org/eu/fundazioa/aurkezpena/patronatua>

<sup>8</sup> 2021eko otsailean berreskuratua hemendik: <https://es.greenpeace.org/eu/quienes-somos/como-nos-organizamos/consejo/>

<sup>9</sup> 2021eko otsailean berreskuratua hemendik: <https://www.ecologistasenaccion.org/quienes-somos/>

<sup>10</sup> 2021eko otsailean berreskuratua hemendik: [https://unfccc.int/sites/default/files/resource/2020.03.10\\_Gender%20composition.pdf](https://unfccc.int/sites/default/files/resource/2020.03.10_Gender%20composition.pdf)



**14. koadroa:** Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (KANBEK, 2018-2020) parte diren erakundeen osaera

Urteak	Kideak, guztira	Emakumeak	Gizonak	Erakunde horiek osatzen dituzten emakumeen ehunekoa
2018	272	82	190	30%
2019	316	98	218	31%
2020	332	116	216	35%

Nazio Batuak, Klima Aldaketaren Idazkaritza.

## 2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Egungo gizarteak bizi duen **ingurumen- eta jasangarritasun-krisia, klima-aldaketa**, hainbat arazotan gorpuzten da, eta arazo horiei aurre egiteko beharrezkoa da berdintasun-irizpideen arabera jardutea. Gure inguruneen jasangarritasuna lortu ahal izateko, funtsezkoa da gizarte-jasangarritasuna lortzea; horretarako emakumeak hartu behar dira kontuan, gizartearen babesle nagusi diren neurrian, eta paper zentrala jokatu behar dute baliabide naturalen erabilerari eta kudeaketari buruzko erabakitze-prozesuetan.

Gure gizartean pixkanaka nagusituz joan den kontsumo-eritmoaren ondorioz, produkzio-lana, hau da, kontsumitu ahal izateko dirua ematen digun hori balioesten da soilik, eta hori baino ez da hartzen lantzat. **Ugalketan eta etxean egiten diren lanek**, hots, egunean, batez beste, emakumeek gizonak baino denbora gehiago eskaintzen dieten lanek (71 minutu gehiago etxeko lanetan eta 22 minutu gehiago seme-alaben zaintzan, EUSTATen 2018ko Denboraren erabileren Inkestako datuen arabera) ez diote egungo merkataritza-logikari jarraitzen. Lan horiek aintzat hartzea eta bistara ateratzea funtsezkoa da gure sistema aldatu dadin, gizarte zuzenago eta bidezkoago batean oinarrituta, gure ingurune naturalari hainbesteko kaltea egiten dion logika kapitalista hori alde batera utzirik.

Ingurumenaren jasangarritasunak gizartearen jasangarritasunean eta bidezkoitasunean oinarritu behar du; hezkuntza eta balioak oinarri harturik pertsonak gauza izan behar dute egungo sistema patriarkalak eta ohitura kontsumistek gure kulturaren parte bezala sustraitu dituzten lehentasunak aldatzeko. Horretarako, beharrezkoa da orain arte ez ikusi egin zaien lanak eta eginkizunak balioestea, hala nola hazkuntza-lanak, osasunari edo elikagaiei buruzko jakintzaren transmisioa, zainketa-lanak edo gure ingurumena zaintzearen eta babestearen garrantziari buruzko sentsibilizazio-lanak. Ingurumenaren jasangarritasunerako funtsezko eginkizunetako batzuk dira horiek, baina gizarte osoak hartu behar ditu bere gain, eta ez emakumeek soilik.

Gizartearen jasangarritasunak **erantzukidetasuna** eskatzen du ugalketa-lanen banaketan. Beharrezkoa da etxeko eginkizunetarako denboraren banaketa aldatzea: gizonak zeregin horietan gehiago inplikatzeko aldaketa ekarriko luke denbora horien erabileran, eta emakume askori ahalbidetuko lieke lan-merkatura sartzea, prestatzeko denbora gehiago izatea edo denbora libre gehiago izatea, beste jarduera batzuen artean. Dударik gabe, etxeko eta zainketa lanetako erantzukidetasun horrek beste aldaketa batzuk ekarriko lituzke berarekin, eta ondorioak izango lituzke gizarteak bere ingurune naturalarekin ezartzen dituen harremanetan: kontserbazioaren eta zainketaren estimazioan elkarrekotasun handiagoa izatea gizon eta emakumeen artean, bizitza komunitarioak sustatzea edo espazio publikoaren eta pribatuaren arteko lotura handiagoa izatea.

**Emakumeen parte-hartzea** funtsezkoa da ingurumenaren garapen jasagarria lortzeko behar diren oinarrizko prozesu askotan: lanaren familiako antolakuntzan, ekoizteko eta kontsumitzeko ereduetan, populazioaren hazkundean, botere politikoaren banaketan, eta abar. Ikuspegi horretatik, erronka honako hau da: emakumeak are gehiago txertatzea erabakiak hartzeko guneetan eta parte-hartze prozesuetan, hala, emakumeek gizonetik duten posizioa hobetzeaz gainera, bizi-kalitate hobea lortzea posible egingo duen garapena izateko.

Asko erabiltzen diren zenbait ingurumen-adierazlek, **aztarna ekologikoak**, esate baterako, kontsumoaren alorrean ditugun ohituren eta sortzen ditugun hondakinen arteko erlazioa erakustea izaten dute helburu, baina, era berean, oharkabean pasatu ohi da, adibidez, lanaren zatiketa sexualak emakumeengan duen inpaktua, eta zer nolako eragina izan dezakeen horrek emakumeek beren ingurune naturalarekin duten harremanean.

Gaur egun, ingurumen-arazo askok **hirietan** dute erdigune nagusia. Gero eta energia eskaera handiagoa dago hirietan; ur-hornidura premiak ere hazten ari dira biztanleria handitu ahala; eta **garraioak** eta mugikortasunak paper bereziki erabakigarria jokatzen dute beroietan, ingurumenari dagokionez. Garraio-sareen plangintza eta kudeaketa txar batek ondorio kaltegarri asko ekar ditzake alde guztietatik inguratzen gaituen ingurumenerako eta, beraz, ingurumen horretan bizi diren pertsonentzat: berotegi-efektuko emisioak, erregai fosilen mendekotasuna, airearen kutsadura, zarata, azpiegituren eraikuntza (horrek dakartzan material- eta energia-kontsumoa eta nekazaritza- eta baso-lurren okupazioa), eta abar.

Ingurumen-ongizateak, garraioari dagokionez, hurbiltasun-ereduan oinarritu behar du, distantzia laburreko joan-etorriak mesedetu behar ditu, emakumeen artean hain arruntak diren horiek, mota bateko eta besteko garraio-sareen arteko konexio on batean bermaturik, ibilgailu pribatuaren erabilera murizten lagun dezan, oinez eta garraio publikoan egindako joan-etorrien mesedetan.

Emakumeak dira, hain zuzen ere, oinez eta garraio publikoan joan-etorri gehien egiten dituztenak, neurri batean, egunero aurre egin behar dioten zeregin-kateak horretarako bide ematen duelako. Beren joan-etorrietan eta mugitzeko moduan emakumeek dituzten **mugikortasun-eredu** horiek hurbilago daude eredu jasagarrietatik gizonenak baino, batez ere, ibilgailu pribatua askoz gehiago erabiltzen dutelako horiek. Beraz, oinezko ibilbide-sare batean oinarritutako hiri-diseinu egoki baten alde egitea eta gizarte-talde guztien premiei erantzungo dien mugikortasunaren plangintza eraginkorrago bat, dudarik gabe, ingurumenaren kalitatea hobetzeko eragin-ahalmen handiko esku-hartze larriak dira, biak ala biak.

Hortaz, genero-ikuspegia aintzat hartzen duen mugikortasuna kontuan hartzea, bai zuzendaritza-fasean, eta bai plangintzaren eta parte-hartzearen faseetan, faktore erabakigarria izango da ez bakarrik garraioa emakumeen beharizantara egokitzeko, gizonen lekualdatze-ereduak gaindituz; baita,

era horretan, gure egungo mugikortasun-ereduek ingurumenean eragiten duten inpaktua murriztea lortzeko ere. Garraio-sistemen gaur egungo antolakuntza-moduak eredu maskulintik hurbilago dagoen herritar prototipo bat hartzen du oinarri gisa, baina patroia hori ez da lagungarri gertatzen emakumeen beharrezko erantzuteko, zeregin-kate baten inguruan atondutako bizimodu pertsonala eta familiarra kanpoko lanarekin bateragarri egiteko, zaila baita hori guztia antolatzea emakumearen premia espezifikoak aintzat hartu gabe.

**Emakumeen osasuna** kaltetuagoa gerta daiteke gizonena baino ingurumeneko hainbat agenteren eragina dela medio, bai landa-ingurunean eta bai hirian, zenbait lanbidetan –nekazaritza, industria kimikoa, farmazia-industria, kosmetika, etab.– erabiltzen diren produktuekiko kontaktuagatik eta ingurumenean dauden elementu kimiko iraunkorren eraginez (CTPak edo KOak, Kutsatzaile Organiko Iraunkorrak).

Aurreko paragrafoetan aipatu den bezala, ingurumenak efektu desberdinak eragiten ditu gizonezkoen eta emakumezkoen osasunean. Produktu kimikoen eraginpean egoteak bereziki eragiten die emakumeei; horregatik gertatzen dira emakumeen artean ingurumen-kutsadurak eragindako gaixotasunen kasu gehiago, hala nola sentibiltate kimiko anizkoitza, fibromialgia, bai eta neke kronikoko kasu batzuk ere (Valls-Llobet, 2010).

Lanbide jakin batzuetan emakumeek duten presentzia handiagoak areagotu egiten du hainbat substantzia kimikoren eraginpean egotetik eratortzen diren zenbait gaixotasun nozitzeko arriskua. Halako aktibitateetatik osasunerako erator daitezkeen ondorioak honako hauek izan daitezke: arnas arazoak, larruazaleko alergiak, bronkioetako asma, bronkitis errepikakorra eta dermatitisa.

Kontuan hartzen badugu patologia horiek ez direla gaixotasun profesionaltzat hartzen, eta lanbide horietan –eta, oro har, gainerakoetan– ez direla existitzen, edo oso gutxi direla, generoaren osagaia aintzat hartzen duten osasunaren prebentziarako gidak, ez da harrizkoa emakumeen presentzia handiagoa duten zenbait lanbide-eremutan osasun-arazo horiei ia gaur arte ez ikusi egin izana.

Illo horretan, beharrezkoa da osasun- eta ingurumen-arazoak aztertzean genero-sentiberatasun handiagoa ekarriko duten legeak eta araudiak aplikatzea eta ikerketa gehiago egitea, non sexuaren arabera bereizitako azterketak egingo diren eta generoa analisirako kategoria gisa erabiliko duten.

**Ingurumenarekin lotura duten sektore ekonomiko** berrien alde egiten jarraitzeak genero-berdintasuna sustatzea ekarri behar luke berarekin, emakumeak sektore horietara gehiago heltzea bultzatzeko eta, ondorioz, haien ahalduzko mesede egiteko.

Ekonomia berdearekin zerikusia duten enpleguetan genero-berdintasuna sustatzeko, bermatu behar litzateke lanpostu berde berri horiek zuzen banatuko direla emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeek sarbide handiagoa izango dutela orain arte sarbide eskasagoa izan duten sektore ekonomikoetara.

Ekonomia berdean genero-ikuspegia aintzat hartzen ez bada, sortutako lanpostuak, segur aski, gizezkoek okupatuko dituzte; izan ere, tradizioz gizezkoak gehiengo izan diren sektoreetan sortuko baitira, seguruenera, aipatutako lan horiek. Ondorioz, doikuntza batzuk egin beharko lirateke ekonomia berdearen kontzeptuari dagokionez, eta generoan oinarria duten arazoekiko ikuspegi sentiberagoa sustatu behar litzateke, garapen jasangarriko eta gizarte-berdintasuneko helburu orokorrak asetzea posible izan dadin.

Azkenik, **Europako Parlamentuak, «emakumeei, genero-berdintasunari eta justizia klimatikoari buruz<sup>11</sup>»** 2018ko urtarrilaren 16an onetsitako ebazpenean, onartu zuen genero-berdintasuna ezinbesteko eskakizuna dela garapen jasangarriko eta klima-erronken kudeaketa eraginkorrerako; nabarmendu zuen emakumeak biktima izateaz gain, aldaketa-bektore indartsuak direla, erabateko partaidetza izanez gero, klima-aldaketaren aurrean estrategia eraginkorrak eta egokitzeko eta arintzeko konponbideak sortu eta bete ahal izango baitituzte, eta klima-aldaketarekiko erresilientzia gara dezaketela sektore guztietan, nekazaritzatik, basogintzatik eta arrantzatik hasita, energia-azpiegiturekin eta hiri jasangarriekin amaitzeraino, dituzten esperientzia-arloei eta ezagutza praktikoei esker. Ildo horretan, estatuari zuzendutako zenbait gomendio ezartzen ditu norabide honetan:

- Batzordeari eskatzen dio kontuan har ditzala kanpoko merkataritza- eta garapen-politiken gizarte- eta ingurumen-eraginak, baita bere jarduketek emakumeengan dituzten eraginak ere.
- Batzordeari eskatzen dio, estatu kideekin batera, berriro ere lagundu dezala Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (KANBEK) genero-arloko Ekintza Plana egiten, onartzen eta finantzatzen, eta lan globaleko eta urte anitzeko programa batekin osa dezala. Plan horretan bildu beharko dira finantzaketa, jarduteko lehentasunezko arloak, egutegi bat, emaitzen adierazle giltzarriak, eragile arduratsuen definizio bat eta jarraipena egiteko nahiz berrikusteko mekanismoak.
- Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die, Batasunak genero-berdintasunarekin eta giza eskubideekin hartutako konpromisoekin bat etorritik, bermatu dezala nazio-mailan zehaztutako hurrengo ekarpenetan genero-berdintasunari eta giza eskubideei buruzko txosten koherenteak sartuko direla.
- Estatu kideei eskatzen die 21/CP.22 erabakia, «Generoa eta klima-aldaketa» izenburua duena, bete dezatela. Erabaki horrek «Alderdiei

<sup>11</sup> Europako Parlamentuaren ebazpena, 2018ko urtarrilaren 16koa, «emakumeei, genero-berdintasunari eta justizia klimatikoari buruz» (2017/2086(INI)). <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52018IP0005&from=EN>

eskatzen die genero-kontuen koordinatzaile bat izenda dezatela eta lagundu diezaiotela, klimarekin lotura duten gaiak negoziatzeko, aplikatzeko eta zaintzeko». Era berean, eskatzen die genero-kontuetako hirugarren herrialdeetako edo herrialde kideetako koordinatzaileei lagundu diezaiotela.

- Batzordeari eskatzen dio, estatu kideekin batera, generoarekin ikuspegi sentikorra eta giza eskubideetan ez ezik, Varsoviako Nazioarteko Mekanismoaren Lekualdaketei buruzko Zeregin Taldearen jardueretan ere oinarritzen dena har dezala, emakumeak eta neskak klima-aldaketaren ondorioz lekualdatutako talde kalteberenetako kide direla eta, beraz, bereziki emakumeen salerosketarako eta genero-indarkeriarako bereziki kalteberak direla aintzatesteko.
- Batzordeari eskatzen dio klima-aldaketa maila guztietako garapen-programa guztietan sar dezala; eskatzen du, halaber, landa-emakumeek eta emakume indigenek parte-hartze handiagoa izan dezatela erabakiak hartzeko prozesuetan eta klima-aldaketari buruzko garapen-programak eta -politikak planifikatzeko, aplikatzeko eta egiteko garaian.
- Batzordeari eskatzen dio, estatu kideekin batera, berma dezala genero-ikuspegia duen ikuskerara bat aplikatuko duela Hondamendien ondoriozko Lekualdaketarako Plataformaren esparruan («Nansen ekimena») eta Mugetan zehar Lekualdatutako Pertsonen Babeserako Agenda Hondamendien eta Klima Aldaketaren Testuinguruan.
- Batzordeari eta eskatu kideei eskatzen die klima-aldaketari buruzko politikak, programak eta proiektuak planifikatu, aplikatu, jarraitu eta ebaluatzeko garaian adierazleak defini ditzatela eta datuak bil ditzatela sexuaren arabera banakatuta, baliabide hauek erabiliz, adibidez: generoaren analisia, generoaren eraginaren ebaluazioak, genero-ikuspegia duten aurreikuspenak eta ingurumen- eta genero-indizea, baita EIGEn ahaleginaren bitartez ere.
- Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die munduko ituna lortzen lagundu dezatela, migrazioa segurua, ordenatua eta erregularra izateko, justizia klimatikoa zaintzearen; horretarako, onartu beharko dute klima-aldaketa migrazioaren eragilea dela, giza eskubideetan oinarritutako ekarpenak egin beharko dituzte eta genero-indarkeria itunaren alderdi guztietan sartu beharko dute, klima-aldaketaren ondorioz lekuz aldatu direnen beharrekina bat etoriz.
- Alderdi interesdun guztiei eskatzen die emakumeen ahalduntzea eta kontzientziazioa susta dezatela; horretarako, klimarekin lotura duten hondamendiak gertatu aurretik, gertatu bitartean eta gertatu ondoren babesteari buruz dituzten ezagutzak sustatuz, eta hondamendietarako prestaketan, alerta goiztiarrean eta prebentzioan modu aktiboan parte har dezaten bultzatu beharko dute, hori egokitzeko ahalmenaren funtsezko elementua baita hondamendiren bat gertatuz gero.
- Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die, lekuan bertan dauden gizarte zibileko erakundeekin elkarlanean arituz, ikuskapen-mekanismoak aplikatu, lagundu eta indartu ditzatela lekualdatuen edo migratzaileen harrera-

- 
- zentroetan –genero-indarkeria eragozteko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenetan–, emakumeei eta neskei egindako jazarpen oro saihesteko.
- Batzordeari eskatzen dio gizarte zibileko eta giza eskubideak defendatzeko erakundeekin lan egin dezala, harrera-zentroetan errefuxiatuen eta lekualdatuen eskubideak errespetatzen direla bermatzeko, bereziki emakume eta neska kalteberen kasuan.

Ilido horretan, «The Environment and gender index. EGI» (UICN, 2013) txostenean adierazten da generoari eta ingurumenari buruzko nazioarteko akordioen aplikazioa urria dela herrialde gehienetan.

## 2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p><b>Emakumeei osasuna</b> hobetzen laguntzea beren bizitzako ziklo osoan, eta arreta berezia eskaintzea emakumeengan eragin handiena duten osasun-arazoei.</p>	<p><b>44.1 artikulua</b> 4/2005 Legea</p>
<p>Emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea <b>osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan. Horretarako, aintzat hartuko du gizonak eta emakumeek dituzten egoerak, baldintzak eta beharrianak desberdinak direla, eta, ondorioz, politika espezifikoak garatuko ditu beharrezkoa denean.</b> Bestalde, azterketa, eztabaida eta kontzientziazioa suspertu behar da profesionalen, erabiltzaileen eta osasun-sistemeekin zerikusia duten eragileen artean, eremu horretan emakumeek eta gizonak dituzten desberdintasunei buruz.</p>	<p><b>44.2 artikulua</b> 4/2005 Legea</p>
<p>Beharrezkoak diren neurriak hartzea ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan <b>genero-ikuspegia</b> txertatuta dagoela bermatzeko, besteak beste, ondokoak kontuan harturik: pertsonen <b>segurtasuna</b>; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; <b>bizitza pertsonala, familia eta lanarekin uztartu</b> ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan <b>emakumeek partaidetza</b> handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.</p>	<p><b>46.1 artikulua</b> 4/2005 Legea</p>
<p><b>Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua</b> izan dadila sustatzea profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan. Horretarako, beste jarduketa batzuen artean, dagozkien dirulaguntzak egokitu ditzakete, emakumeen ordezkariak txikiak dituzten organoetan emakumeen presentzia handitzeko neurriak hartzearen arabera.</p>	<p><b>24.1 artikulua</b> 4/2005 Legea</p>
<p>Hirigintzako eta lurralde-antolaketako politikek kontuan hartuko dituzte <b>gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrianak</b>, eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan heltzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegituretara.</p>	<p><b>31.1 artikulua</b> 3/2007 Lege Organikoa</p>
<p>Hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, genero-ikuspegia kontuan hartzea; horretarako, bereziki, <b>heritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak</b> erabiliko dituzte.</p>	<p><b>31.3 artikulua</b> 3/2007 Lege Organikoa</p>



BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten <b>lurralde- eta hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraiobide jasangarrien diseinuko irizpideak</b> identifikatzea eta aplikatzea.	<b>II. ardatza. 5.3.10</b> VII. EGBP EAE
Tokiko berdintasun-politikak finka daitezen laguntzea, lurraldearen aniztasuna eta haren landatartasuna kontuan hartuta.	<b>I. ardatza. O4</b> IV. EGBP Arabako Foru Aldundia
Landatartasuna Arabako emakumeentzako diskriminazio- eta desberdinkeria-iturri ez izateko baldintzak sortzea.	<b>II. ardatza. O3</b> IV. EGBP Arabako Foru Aldundia
Generoaren ikuspegitik jasangarria den hiri- eta landa-eredu eta harreman- eta ingurumen-ereduari buruzko eztabaidak sustatzea.	<b>En.1 OG</b> II. EGBP Gipuzkoako Foru Aldundia
Baldintza egokiak sortzen laguntzea, hiri- eta landa-inguruneak, harremanetakoak eta ingurumenak bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetu dezaten.	<b>En.2 OG</b> II. EGBP Gipuzkoako Foru Aldundia
Gorputz-hezkuntzako irakasleen eta kirol-entrenamenduko langileen <b>prestakuntzan</b> genero-dimentsioa sartzeari.	2002/2280 Ebazpena, <b>19. eta 25. paragrafoak</b>
Laguntza teknikoa eta bitartekoak ematea, <b>kirol-federazioek</b> emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboko planak egin, onartu eta gauza ditzaten..	16/2006 Dekretuaren <b>170. artikulua</b>
<b>Erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetan</b> emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua sustatzea.	4/2005 Legearen <b>24.1 art.</b> 3/2007 Lege Organikoaren <b>29.2 art.</b> 203/2010 Dekretuaren <b>28.2 art.</b> 2012ko otsailaren 19ko Agindua, <b>60.4 art.</b> 2002/2280 Ebazpena, <b>42. paragrafoa</b> NOBren hitzaldia L.A.n
Kirolean <b>sexu-jazarpena eta -abusua</b> prebenitzeko neurriak hartzea.	2002/2280 Ebazpena, <b>40. paragrafoa</b>

### 3. LEGEDIA

<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA</b>
<u>4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa</u>
<u>EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana</u>
<u>Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV Foru plana (2016-2020)</u>
<u>Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Foru Plana. 2016-2019</u>
<u>Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020</u>
<u>3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra</u>
<u>Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programa 2020</u>
<u>EkoEuskadi 2020. Euskadiko Garapen Jasangarriaren Estrategia, 2020</u>
<u>Klima-aldaketari buruzko EAeko legearen aurreproiektua</u>
<u>Klima aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia. Klima 2050.</u>
<b>ESTATUKOA</b>
<u>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna eraginkorra izatekoa</u>
<u>27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak barne hartzen ditu)</u>
<u>21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa</u>
<u>26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen-erantzukizunari buruzkoa</u>
<u>6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriena</u>
<u>901/2020 Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen</u>
<u>902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzkoa</u>

## EUROPAKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso estrategikoa, 2016-2019

Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2012ko apirilaren 20koa, emakumeak eta klima-aldaketari buruzkoa (2011/2197)(INI))

Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 16koa, emakumeei, genero-berdintasunari eta justizia klimatikoari buruzkoa (2017/2086(INI))

## NAZIOARTEKOA

Pekingo Adierazpena eta Nazio Batuen Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziaren Ekintzarako Plataforma (Pekin, 1995) eta ondorengo saiioak, hala nola: Pekin+5 (New York, 2000), Pekin+10 (New York, 2005), Pekin+15 (New York, 2010) eta Pekin+20.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak

OHARRA: Ingurumenaren eremuko berdintasun-agindu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere azertu behar dira; horiek guztiak, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako alderdi juridikoei buruzko dokumentuan aurki daitezke.

## 4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKOTA SUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko etxebizitzak, ohituren eta ura aurrezteko gailuen arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko etxebizitzak, erabilitako isolamendu motaren eta argiztapenaren arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko etxebizitzak, hondakinei emandako tratamenduaren arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko etxebizitzak, erabilera pertsonalerako ibilgailu kopuruaren arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko etxebizitzak, produktu batzuen erabileraren arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko etxebizitzak, erostean faktore batzuek duten garrantziaren arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko 16 urteko eta hortik gorako pertsonak, ingurumenari buruz dituzten iritzien arabera (%). 2015.</li> <li>EAEko 16 urteko eta hortik gorako pertsonak, ingurumen-neurrien alde daudenak (%). 2015.</li> <li>Ingurumen-jarduerak egiten dituzten EAEko 16 urteko eta hortik gorako pertsonak (%). 2015.</li> </ul>	<a href="#">Familiak eta Ingurumena, 2015eko inkesta.</a> Eustat (2016)	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasunaren baldintzatzaileak. Elikadura-ohiturak.</li> </ul>	<a href="#">Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun inkesta 2018.</a> Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2019)	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> <li>Landunak, sexuaren eta jardueradarraren arabera.</li> <li>Landunak, lanaldi motaren, sexuaren eta jardueradarraren arabera.</li> </ul>	<a href="#">Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2019</a> EIN (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, jardueraren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018</li> </ul>	<a href="#">Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2018</a> Eustat (2019)	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal AEn Lan Heziketan matrikulatutako ikasleak, gradu eta familia profesionalaren arabera, lurralde historikoari eta sexuari jarraikiz. 2018-2019.</li> </ul>	<a href="#">Eskola Jardueraren Estatistika</a> Eustat (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko unibertsitateetan graduiko ikasketetan matrikulatutako ikasleak, titulazioaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018-2019.</li> </ul>	<a href="#">Unibertsitate-estadistika</a> Eustat (2020)	Urtekoa

## 5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

- Europako Batzordea (2014). Europako Egitura eta Inbertsio Funtsak, 2014-2020: Testuak eta iruzkin ofizialak.
- EIGE, Genero Berdintasunaren Europako Institutua (2016). Gender in environment and climate change.
- EIGE, Genero Berdintasunaren Europako Institutua (2013). Review of the implementation in the EU of area K of the Beijing platform for action.
- FAO, Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea (2018). Kima-aldaketarako abeltzaintzako soluzioak.
- Biodibertsitate Fundazioa eta Espainiako Jasangarritasunaren Behatokia - EJB (2010). Informe empleo verde en una economía sostenible.
- Kataluniako Generalitatea, Lan Saila. 10 porqués para una salud y una seguridad laboral con perspectiva de género.
- Eusko Jaurlaritza, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (2017). Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana, 2016.
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2017). Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn.
- Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2017). Klima-aldaketa eta energia.
- Ihobe, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (2011). 2011ko Ekobarometro soziala.EAEn herritarrek Ingurumenari buruz egiten duten balorazioa.
- Ihobe, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (2011). Merkatu eta enplegu berdeak 2020. EAEn industriaren egitekoa ekonomia jasangarria lortzeko.
- IUCN, Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna (2013). The Environment and gender index EGI.
- Oteus, Euskadiko Garraio Behatokia, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (2019). Euskadiko garraioaren panoramika, 2018.
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programa (2011). Hacia una economía verde: Guía para el desarrollo sostenible y la erradicación de la pobreza.
- Red2Red (2020). Género y cambio climático. Un diagnóstico de situación. Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Erakundeak argitaratua.

- 
- Sen, G., George, A. eta Östlin, P. (2005). *Incorporar la perspectiva de género en la equidad en salud: un análisis de la investigación y las políticas.* Osasunaren Erakunde Panamerikarrak argitaratua.
  - Valls-Llobet, C. (2010). *Contaminación ambiental y salud de las mujeres.*
  - Valls-Llobet, C. (2010). *Medio ambiente y salud. Mujeres y hombres en un mundo de nuevos riesgos.*

#### BESTE ESTEKA INTERESGARRI BATZUK

- Klima-aldaketarekin lotura duen araudia.  
<https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/legislacion/documentacion/normativa-y-textos-legales/default.aspx>
- Erakundeak.  
<https://www.miteco.gob.es/eu/cambio-climatico/organismos-y-organizaciones/>
- Eusko Jaurlaritzako ingurumen-alorrari buruzko legeria.  
<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-araudia/web01-a2inguru/eu/>
- Emakumearen Erakunde: ingurumena.  
<https://www.inmujeres.gob.es/eu/areasTematicas/portada/home.htm>